

FATORRI LANTZARRI

oskorri

Natxo de Felipe eta
OSKORRIko kideek,
Gabon-gauean
platotik bertatik
Felix Linares,
Javier Clemente,
Chavarri - Gorospe,
Goñi - Eugi,
Anne Igartiburu,
Jose Antonio Ardanza,
Gloria Urriaga, eta
abarrekin batera
kantatu eta
kantatzen
gozatzeko aukera
eskainiko digute.



ETB

23:30 gaur

LEE JAE-SEUNG



Poliziak eta monje budistak elkarren aurka Hego Korean

Seul hiriburuan tenplu bat hilabete baino gehiagoz okupatua zuten monje budistak kanporatzen saiatu ziren poliziak atzo, eta istilu larriak gertatu ziren. 2.500 polizia baino gehiago sartu ziren tenplura. Bosgarren solairuko terrazan, ordea, aurre egin zioten monjeek, molotov koktelak jaurtiz. Bederatzi pertsona zauritu ziren, haietako bost poliziak. Izan ere, gapirio bat poliziak eraikineri igotzen ari zela irauli baitzen (argazkian). Gainera, monje ugari beraien buruari su eman zioten. Azkenean, poliziek 47 monje eta jarraitzaile atxilotu zituzten. Garbitze eta Aldaketarako Batzordeko kide dira monjeak, eta tenplua okupatu zuten Song Wol Ju hirugarren aldiz jarraian beraien buruzagi izpiritual gisa aukeratu izana protestatzeko.

Bagdadek Nazio Batuei eskatu die hegaldi zibilak eteteko

EEBBak prest daude Iraki baimena emateko, petrolio gehiago sal dezan

Irakek Nazio Batuei eskatu die herrialde horretara doazen hegaldi zibilak eteteko, «segurtasun neurriengatik». Frantziak, bestalde, Richard Butler Unscomeko lehendakariari leporatu dio Segurtasun Kontseiluaren lana bere gain hartu izana. EEBBak prest daude Iraki petrolio gehiago saltzeko baimena emateko.


Agentziak / Londres

IRAKEKO Gobernuak Nazio Batuei eskatu zien atzo herrialde horretara bidaltzen dituen hegaldi zibilak bertan behera uzteko, «segurtasun arrazoiengatik», EEBBek eta Erresuma Batuak airez bonbardatu eta gero. Nazio Batuetako iturriek esan zuten Bagdadek atzo debekatu ziola hegazkin bati Habbaniako basean lurra hartzea. Kofi Annan Nazio Batuetako idazkari nagusiaren ordezkari Prakash Shah-k heldu behar zuten hor.

Nazio Batuek Habbaniako basea erabiltzen dute Iraken lur hartzeko. Bahreindik aineratu eta horra doazen hegaldiak dira normalean, eta Iraketik Bahreineri doazenak.

Irakek ez zuen adierazpenik egin hortaz, baina Nazio Batuak itxaropentsu azaldu ziren debekua behin-behinekoa izango delakoan.

Irakek salatu egin zuen, ordea, bigarren egunez jarraian herrialdeko aire espazioa bortxatu dutela hegazkin «etsaiek».



Bagdadeko haurrak, bonbardaketek utzitako txikizoi begira.

ENRIC MARTI / AP

Frantziako Atzerri ministro Hubert Vedrinek Richard Butler, Unscomeko Nazio Batuetako desarmarako batzorde bereziko lehendakaria, salatu zuen «Segurtasun Kontseilua ordezkatzeagatik». Izan ere, EEBBen eta Erresuma Batuaren eraso Butlerrek landutako txostenaren ondorio izan zen.

Gainera, Nazio Batuek gainbegiratzeko modu bat finkatu behar dute Iraken aurkako bahimendua kentzeko, Vedrineren ustez.

Nazio Batuen giza laguntza programako langileak Bagdadera heldu ziren atzo, baina Unscome etorkizuna ilunagoa da. Ez da ziurra batzordeko begiraleak berriro irakera itzuliko direnik. Butler berak onartu egin zuen

batzordeak erabiltzen dituen lan tresnek ez dutela balio, eta era berriak bilatu behar direla Iraken desarmea ziurtatzeko.

EEBBak prest daude Irakek esportatzen duen petrolio kopurua handiagotzeko, Irakeko herritarrek jaki gehiago behar dutela Nazio Batuek ondorioztatzen badute. Petrolioia salduta jakiak eta botikak erosten ditu Irakek.

Scott Ritter Unscomeko kide ohiak gogor salatu zituen EEBBak eta Erresuma Batua Iraki erasotzeagatik. Ritterrek adierazi zuenez, bi herrialdeek «hilabete, eta, agian, urte askotako» datuak erabili zituzten Iraki erasotzeko. Bonbardatutako guneak ikusita helburua ez zen desarmea, Ritterren esanetan, irakiarrak haserretzea baizik. X